# GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

# CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailak 5**

**Vitoria-Gasteiz, 5 de julio de 2022**

Navarra, 2 – 01007 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 017 972 – e-mail: prentsa@ej-gv.es

**Lana eta Enplegua**

## GOBERNU KONTSEILUAK ENPRESAREN GIZARTE ERANTZUKIZUNA ZABALTZEKO LAGUNTZAK ONARTU DITU

Gobernu Kontseiluak onartu du gaur Euskal Autonomia Erkidegoko enpresetan enpresen gizarte-erantzukizuna zabaltzeko eta ezartzeko laguntzen deialdia.

2022. urterako 150.000 euroko zuzkidurarekin, laguntzak bideratuko dira EGEaren ezarpena finantzatzera, jasangarritasun-memoriak eginez; Garapen Jasangarriaren Helburuei (GJH) egindako ekarpenaren diagnostikoa egitera, bai gizarte-ekonomiako enpresetan, bai bestelakoak direnetan, bai eta eremu publikoetan, enpresarialetan eta korporatiboetan Enpresen Gizarte Erantzukizunaren kultura hedatzeko jardueretarako ere.

2021ean, deialdi horrek 121.309 euroko laguntzak eman zituen.

**Ekonomia eta Ogasuna**

## GOBERNU KONTSEILUAK ENERGIA ETA LEHENGAIEN PREZIOEN IGOERAREN AURREAN ENPRESA ETA AUTONOMOEI FINANTZA-LAGUNTZAK EMATEKO NEURRIAK ARAUTZEN DITUEN DEKRETUA ONARTU DU

Osasun-krisiak enpresa-ehunean eragindako kalteak arintzeko 2020an eta 2021ean abian jarri ziren ezohiko neurrien ildo beretik, Eusko Jaurlaritzak, gaurko bilkuran, onartu du enpresa txiki eta ertainei, enpresaburu indibidualei eta profesional autonomoei finantza-laguntzak emateko 2022ko programa garatzen duen dekretua. Oraingoan, energiaren eta lehengaien prezioen igoerak eragindako inpaktu ekonomikoari erantzuteko laguntzak izango dira.

Dekretu honetan ezartzen dira 2022ko finantza-laguntzako programan sartzeko baldintzak eta prozedura. Helburua da enpresa txiki eta ertainek, enpresaburu indibidualek eta profesional autonomoek 2020an eta 2021ean formalizatu zituzten maileguen berritze aldarazlea lortu ahal izatea.

Maileguaren eta abalaren berritze aldarazleetarako eskaerak 2022ko urriaren 30a baino lehen egin behar dira, eta 2022ko abenduaren 31 baino lehen formalizatu.

Eragiketen amortizazio-gabealdia handitzea behar-beharrezkotzat jotzen da egungo egoera ekonomikoan; izan ere, enpresen finantzaketa-beharrak Administrazioaren zenbait esparrutan eskainitako finantzaketa-ildoekin estalitzat jotzen diren arren, energiaren kostuen igoeraren ondoriozko emaitza apalagoek ordaindu gabekoak gehitzea eragin dezakete, batik bat enpresek maileguen amortizazio-kuotei garaiz eta behar bezala aurre egiteko ezintasunagatik.

## Hezkuntza

### HEZKUNTZA SAILAK 28,8 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU HAINBAT IKASTETXE PUBLIKOTAKO JANTOKI ZERBITZURAKO

- **Hezkuntza Sailak lehiaketara aterako du, 9 lotetan banatuta, modalitate mistoa (*in situ* eta garraiatua) daukaten 50 eskola-jantokitako zerbitzua**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 28.836.768 euro bideratzea jantokien zerbitzua kontratatzeko. Zehazki, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetan dauden Hezkuntza Sailaren mendeko hainbat ikastetxe publikotan kudeaketa zuzeneko jantokien funtzionamendurako janari prestatuak egiteko, garraiatzeko eta emateko, elikagaiez eta lehengaiez hornitzeko eta prestazio osagarriak emateko zerbitzua kontratatzera bideratuko da gastu hori.

Guztira, 50 eskola-jantoki dira, aipaturiko lurralde historiko horietan kokatuak, eta mistotzat jotzen den zerbitzu-modalitatea dutenak, hau da, garraiatutako janariaren eta *in situ* janariaren modalitateak konbinatzen dituena.

Gobernu Kontseiluak gaur gastua onartu ondoren, Hezkuntza Sailak jantoki-zerbitzua kontratatzeko lizitazioa abiatuko du.

Kontratazio publikoan ETEek (enpresa txiki eta ertainek) parte-hartze handiagoa izatea sustatzeko, Hezkuntza Sailak hainbat lizitazio prestatu ditu, ematen den zerbitzu motaren arabera eta zerbitzua zein Lurralde Historikotan emango den kontuan hartuta. Horrela, oraingo honetan, guztira 9 lote aterako dira lehiaketara Bizkaiko eta Gipuzkoako 50 eskola-jantokitan zerbitzua emateko, era honetan banatuta:

- Bizkaia: Lurralde Historiko honetan ezaugarri horiek dituzten 25 eskola-jantoki daude. Zerbitzu hau emateko 6 lote eskainiko dira lehiaketan, 15.849.042,06 euroko balioarekin.
- Gipuzkoa: Gaur egun, ezaugarri horiek dituzten 25 eskola-jantoki daude Gipuzkoan, eta 3 lotetan lizitatuko dira, 12.987.726,18 euroko balioarekin.

Hezkuntza Sailaren kudeaketa zuzeneko jantoki hauetan guztietan modalitate mistoko zerbitzua eskaintzen da, eta 9.400 menu inguru ematen dira eguneko. Kontratu hauen iraupena 30 hilabetekoa izango da (uztaila eta abuztua kontuan hartu gabe), eta luzatzeko aukera izango da. Arabako Lurralde Historikoan ez dago egun modalitate honetako zerbitzua eskaintzen duen jantokirik.

Zerbitzua esleitzeko irizpideek, indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen kalitate-estandar, kontrol eta elikagaien segurtasun-neurri guztiez gain, ingurumen-jasangarritasuna eta elikadura osasungarria sustatzeko irizpideak ere jasotzen dituzte.

Gaur egun, Hezkuntza Sailaren kudeaketa zuzeneko 515 jantoki daude Euskadin guztira, eta egunero 85.000 menu inguru zerbitzatzen dira horietan, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleen artean. Jantoki horiek menu eta dieta mota hauek eskaintzen dituzte: menu basala; arrautza-esneki-barazkien menua; arrautza-esneki-barazki eta arrain menua; txerrikirik gabeko menua; eta nutrizio-premia berezietarako dietak (intolerantziak, alergiak, eta dieta bidezko tratamendu espezifikoa daukaten patologietarako dietak; espezialistaren txosten mediko ofizialarekin).

**Hezkuntza**

## 468.000 EURO LANBIDE-GAITASUNAK EBALUATU ETA EGIAZTATZEKO PROZEDURA SUSTATU ETA BULTZATZEKO JARDUERETARAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Lanbide Heziketaren arloko agindu berri bat onartu du gaurko bileran. Honen bidez, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan ordezkaritza duten enpresa- zein sindikatu-elkarteei dirulaguntzak ematen zaizkie, bere jardun-eremuaren barruan lanbide-gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedurari lotutako sustapen-jarduerak gara ditzaten, bai eta gaitasun horiek behar bezala betetzeko beharrezkoak diren koordinazio eta kudeaketa-lanak egin ditzaten ere. Deialdi honek 468.000 euroko zenbatekoa du.

Lanbide-gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedurari esker, herritarrek lan-esperientziaren bitartez edo prestakuntzako bide ez-formalen bitartez hartu dituzten konpetentzia profesionalak egiazta ditzakete, eta, beraz, kualifikazio maila hobetzeko eta prestakuntzarekin jarraitzeko bidea ematen zaie. Horrek guztiak pertsonen gaitasun profesionala eta enplegagarritasuna hobetzen laguntzen du, enpresen lehiakortasuna areagotzearekin batera, eta, beraz, kohesio soziala eta ekonomikoa indartzen laguntzen du.

Deialdi honen bidez diruz lagundu eta finantza daitezkeen gastuen artean honako hauek daude:

- Dibulgazio-jarduerak; Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketan dagoen eskaintzan sartutako konpetentzia-atal guztietarako, lan-esperientziaren bidez edo prestakuntza-bide ez-formalen bidez eskuratutako lanbide-gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura etengabe irekita dagoela jakinarazten duten dibulgazio-jarduerak.
- Sustapen jarduerak; gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko gailuaren erabilera sustatzera eta suspertzera bideratutako jarduerak, hau erabiltzen duten pertsonen kopuruan jauzi kuantitatiboa egiten laguntzeko.
- Gorago adierazitako ekintzak behar bezala gauzatzeko erakunde onuradunek egin behar dituzten koordinazio eta kudeaketa-lanak.
- Pertsonal-gastuak; erakunde onuradunek jarduera horiek garatzeko berariaz kontratatzen edo lan horiek esleitzen dizkieten langileen pertsonal-gastuak.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak 2022ko ekitaldi ekonomikoan gauzatu beharko dira.

Deialdi honen bidez, Hezkuntza Sailak gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozeduraren erabilera bultzatu nahi du, erabiltzen duten pertsonen kopuruan jauzi kuantitatibo handia gerta dadin. Horrek eskatzen du Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan ordezkaritza duten gizarte-eragileek, lanbide-heziketan inplikatutako gizarte-sarearen zati gisa eta bere jardun-eremuaren barruan, ahalegin gehigarri handia egin behar izatea, prozeduran jasotako lanak eraginkortasunez garatzen laguntzeko.

**Hezkuntza**

## IKASTETXEETAKO GIROA EUKALDUNTZEKO DIRU-LANGUNTZAK

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du, 2022-2023 ikasturtean eta itunpeko ikastetxeen eskola-eremuan, euskararen erabilera bultzatzeko asmoz dirulaguntzak ematen dituen Agindua. Deialdi honek 190.000 euroko zenbatekoa du.

Deialdi honen xede nagusia da ikasleen artean euskaraz hizkuntza-gaitasuna eta bat-bateko jariakortasunari bultzada ematea, eskola-giroan euskararen erabilera sustatzearekin batera. Beraz, honako hauek izan daitezke helburu hori hartuta deialdi honen bidez diruz lagundu ahal izango diren ekintza edo jarduerak:

- Ikastetxeetan hizkuntzaren ahozko erabilera egoera ez formaletan bultzatzeko jarduerak, eskola-giroa euskalduntzeko asmoz egiten diren saio-jardueren bitartez: eskola antzerkigintza, bertso-lanketa, kantagintza, irratigintza, bideogintza, podcastak, kontalaritza eta ikasleen ahozko adierazpena hobetzeko asmoz eskolara gonbidatuak ekartzea.
- Euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin ikasgelaz kanpo eginiko jarduerak. Barne hartzen dira guraso, irakasle ez diren langile zein irakasleentzat antolaturiko jarduerak, horien helburua ikasleen erabilera areagotzea bada.
- Euskal giroan bizipena eskaintzeko asmoz antolatutako egonaldiak. Gutxienez 2 gaueko iraupena izan behar dute diruz lagunduak izateko. Hezkuntza Sailak kudeatzen dituen Euskal Girotze Barnetegietan egiten diren egonaldiak berariaz lagunduak direnez, ez dira diruz lagunduko deialdi honetan.
- Ikastetxeen arteko truke-irteerak, horien helburua euskal kultura, hizkuntza zein gizarte-giro desberdinen arteko ezagutza eta hurbilketa areagotzea bada.

Jarduera hauek 2022-2023 ikasturtean burutu beharko dira.

**Osasuna**

## OSASUN SAILAK 2,8 MILIOI EURO BAINO GEHIAGO BIDERATUKO DITU 2022EAN ADIKZIOEN INGURUKO ZENBAIT JARDUKETA GARATZEKO LAGUNTZETARA

Gobernu Kontseiluak gaur onetsi duen aginduaren bidez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, aurten, 2.854.400 euro bideratuko ditu Euskadin lan egiten duten toki-erakunde eta irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako laguntzetara, prebentzio komunitarioko programak garatzeko, prebentzio-proiektuak egiteko eta adikzioen arloan arrisku eta kalteak murrizteko eta jarrera osasungarriak sustatzeko. Era berean, laguntzak toki-erakundeetako adikzioen prebentzio komunitarioko talde teknikoak mantentzera bideratuko dira.

Toki-eremuan eta osasun-arloaz bestelakoetatik egiten diren jarduketetan osasuna sustatzeko, Osasun Sailak laguntza horiek deitzen ditu, eta haien helburua da Euskadiko Adikzioen VII. Planeko jarduketa-ardatzetan hoberen finkatzen diren programak eta proiektuak mantentzea, behar berriak identifikatzea eta horiei erantzuna emango dieten proiektu berriak bultzatzea, bai eta ekimenak hobetzen laguntzea ere.

Laguntza ekonomiko horiek ildo nagusietako bat dira Euskadin adikzioen arloan garatzen den lanean; bertan, erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetza eta hirugarren sektorearekiko eta kolektiboekiko elkarlana funtsezkoak dira.

Hala, Eusko Jaurlaritzak eta Osasun Sailak eutsi egiten diote adikzioen fenomenoari heltzeko eta erantzuteko konpromisoari, eremu komunitariotik, Euskadiko Adikzioen VII. Planarekin bat etorriz; plana Euskadin adikzioen arloan garatzen diren estrategia eta esku-hartze guztien plangintza-, antolamendu- eta koordinazio-tresna da.

Zehazki, laguntza ekonomikoa honela banakatzen da:

- Adikzioen prebentzio komunitarioko talde teknikoak sortu eta mantentzea: 1.174.135 euro
- Toki-planei eta jardun-eremu horretako jokabide osasungarriak sustatzeko planei atxikitako adikzioen prebentzio komunitarioko programak garatzea: 561.765 euro
- Jarduketa-eremu honetan arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta gutxitzeko eta jokaera osasungarriak sustatzeko proiektuak egitea: 118.500 euro.

Haietatik, 236.000 euroko partida Euskadin jokorako adikzioa eta substantziarik gabeko beste adikzio batzuk prebenitzea eta tratatzea helburu duten proiektuetara bideratuko da.

**Osasuna**

## OSASUN SAILAK 25.000 EURO BIDERATU DITU ESPAINIAKO EPIDEMIOLOGIA ELKARTERA, URTEKO 40. BILTZARRA EUSKADIN EGITEKO

Donostiak abuztuaren amaieran hartuko du Espainiako Epidemiologia Elkartearen urteko 40. Biltzarra. Leloa “XXI. mendeko erronkak” izango duen biltzarraren helburua biztanleriari eragiten dioten osasun-arazo nagusiak erakustea da. Osasun Sailak 25.000 euro jarri ditu abuztuaren 31n eta irailaren 1ean eta 2an egingo den foro zientifiko hori Euskadin egin dadin.

Hiru egunetan epidemiologiaren eta osasun publikoaren arloko profesionalek biztanleriari eragiten dioten osasun-arazo nagusiak erakutsiko dituzte, eta egungo osasun-arazoak eta gizarteak aurre egin beharko dien gaixotasun emergenteak kontrolatzen laguntzeko epidemiologiak eskaintzen duen ezagutzaren garrantzia azalduko dute. Biltzarrean osasun-arazoen ikuspegi integrala eskaini nahi da eta, aldi berean, biztanlerian osasuna sustatzea eta gaixotasunari aurrea hartzea baldintzatu dezaketen faktore biologikoei, mentalei, ekonomikoei, sozialei edo hezkuntzarekin edo ingurumenarekin zerikusia duten faktoreei buruzko ezagutza azaldu nahi da.

Osasun Sailaren ustez garrantzizkoa da ezagutza zientifiko horiek Euskadin hedatzea. Gainera, biltzarrean Euskadiko osasun publikoaren arloko profesional ugarik parte hartuko dute, horien artean Osasun Publikoaren Zuzendaritzako 40 profesionalek.
Laster emango da edukiei, mahai-inguruei eta ponentziei buruzko informazio gehiago.

**Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak**

## EUSKO JAURLARITZAK ENPRESENTZAKO LAGUNTZA-LERRO BERRI BAT JARRI DU ABIAN KONTZILIAZIOA SUSTATZEKO

- **392.857,15 euroko guztizko zenbatekoarekin, laguntza horien helburua da erakundeek kontziliazio erantzukidea ezagutu, barneratu eta sustatzea**

Eusko Jaurlaritzak erakundeei eta enpresei zuzendutako beste laguntza-lerro bat onartu du gaur Gobernu Kontseiluan, kontziliazioaren arloko diagnostiko bat eta ekintza-plan bat lantzeko.

Laguntza horien zenbatekoa 392.857,15 eurokoa da, eta enpresei eta elkarteei beren erakundeetan kontziliazio erantzukidea ezagutzen, barneratzen eta sustatzen lagunduko dien aholkularitza teknikoa kontratatzea du helburu.

Laguntza-lerro berri honetarako aurreikusitako edukia eta epeak uztailaren 12an aurkeztuko zaizkio CEBEKi (Bizkaiko Enpresarien Konfederazioari), uztailaren 18an SEA Arabako Enpresei eta uztailaren 19an ADEGIri (Gipuzkoako Enpresen Elkarteari). Aldi berean, uztailaren 14an, laguntza horien helburuak Euskalduna Jauregian egingo den jardunaldi berezi batean azalduko dira. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak antolatu du elkarraldia, APDrekin (Zuzendaritzaren Aurrerapenerako Elkartearekin) batera, eta kontziliazioa izango du ardatz, talentua erakartzeko eta atxikitzeko funtsezko tresna gisa. Hizlarien artean, Talentu, Lidergo eta Coaching arloetan aditu den Juan Carlos Cubeiro izango da, eta Kontziliazioa zure erakundearen talentua ezagutzeko eta aprobetxatzeko giltzarri izeneko hitzaldia emango du.

Gobernu Kontseiluaren bileran nabarmendu den bezala, laguntza-lerro berri hau onartzearekin batera, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak 2018an familiei laguntzeko 2018-2022 IV. Planean jasotako konpromisoari eusten dio. Ezarritako helburua da Euskadin gero eta enpresa gehiagok sustatzea kontziliazioa errazteko planak eta neurriak.

Familia eta Haurren zuzendari Irune Muguruzak nabarmendu duenez, “norberaren bizitza, familia eta lana uztartzeak inplikazioa eta elkarrekiko konpromisoa eskatzen du; erantzunkidea da. Prozesu bizi bat da, eta langileen premietara eta enpresaren ekoizpen-beharretara egokitu behar da”. Adierazi duenez, egiaztatutako errealitate bat da “plantilla pozik edukitzeak onurak ekartzen dizkiela irudiari, identifikazioari, konpromisoari, eraginkortasunari eta talentua eusteari”.

Muguruzak azpimarratu duenez “garrantzitsua da kontziliazioaren potentzialarekin kontzientziatuta dauden enpresak sortzea, goranzko balioa baita langileentzat, gero eta zailtasun handiagoak dituztelako beren bizitza osatzen duten eremuak orekatzeko”.

**Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak**

## EUSKO JAURLARITZAK 137.500 EURO BIDERATU DITU UDALEK MEMORIA DEMOKRATIKOA BERRESKURATZEKO GARATUTAKO PROIEKTUETARAKO

Gobernu Kontseiluak argi berdea eman dio Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak udalei eta gainerako toki-erakundeei zuzendutako laguntzen deialdiari.

Deialdi honen bidez (137.500 euro), Gerra Zibiletik gaur egunera arte Euskadin demokraziaren eta askatasunaren alde egindako borroka eta memoriaren tokiko ikerketako berariazko proiektuak diruz lagundu ahal izango dira. Era berean, diruz lagunduko dira memoria historikoaren ibilbideak taxutzeko, sinbologia frankista kentzeko eta proiektu horiek guztiak zabaltzeko jarduerak.

Tokiko ikerketak, originalak, bultzatu nahi dira, horien edizioa eta argitalpena diruz lagunduz, Euskadin 1936tik bizi izan diren eta giza eskubideen urraketa larriak eragin dituzten gertakari traumatikoak berreraikitzen laguntzeko: gerra Zibila, diktadura frankista, ETAren eta eskuin muturreko beste talde batzuen eta GALen terrorismoa, bai eta poliziaren legez kanpoko indarkeria ere. Lan horiek konpromisoa izan behar dute giza eskubideekin eta indarkeriarik ezarekin, bai eta Euskadiko memoria demokratikoaren balioak transmititzearekin ere.

Deialdi honetan oinarrituta, diruz lagunduko dira, halaber, Memoria Historikoaren ibilbideak taxutzeko eta garatzeko proiektuak. Proiektu horiek guztiek irudi eta seinaletika bera izango dute, eta memoria demokratikoaren balioak errespetatzen dituen diskurtsoa izango dute.

Gainera, Euskadiko memoria demokratikoa transmititzen laguntzen duten pertsonen omenezko edo gertakizunak oroitzeko jarduerak sustatzen dira, bai eta memoria hori zabaltzeko jarduerak ere, hala nola jardunaldiak, mintegiak, erakusketak eta dibulgazio-edukia sortzea web-orrietarako eta ikus-entzunezko beste euskarri batzuetarako.

Azkenik, sinbologia frankistaren aztarnak kentzeko jarduerak ere deialdi honen xede dira.

**Kultura eta Hizkuntza Politika**

## GOBERNU KONTSEILUAK EUSKADIKO IRAKURKETA PUBLIKOKO SAREKO LIBURUTEGIEN ERABILERA ETA IRAKURZALETASUNA BULTZATZEKO 330.000 EUROKO DIRU PARTIDA ONARTU DU

Kultura eta Hizkuntza Politika sailak 330.000 euro bideratuko ditu Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegien zerbitzuen erabilera eta irakurketa sustatzeko. Liburutegi publikoen titular diren Euskal Autonomia Erkidegoko udalak, toki-erakunde eskudunak eta udal-liburutegi publikoen arloko zereginak esleituta dituzten EAEko udal-erakundeek eskatu ahal izango dituzte laguntzak.

Irakurzaletasuna sustatzeko, batez ere haur eta gazteen artean, eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietan kultura eta liburutegi zerbitzuak hedatzeko jarduerak lagunduko dira diruz. Besteak beste, honakoak:

- Irakurzaletasuna sustatzearen arloan profesionalei prestakuntza espezifikoa emateko jarduerak.
- Irakurketako jarduera osagarriak (ipuinaren ordua, irakurketa-tailerrak eta abar).
- Liburuaren inguruko erakusketa bibliografikoak, solasaldiak eta abar antolatzea.
- Literatura-lehiaketak antolatzea.
- Liburua eta liburutegiak sustatzeko kanpainak.

Dirulaguntzak banatzeko irizpidea biztanleriaren araberakoa izango da eta erakunde onuraduneko haurren eta gazteen biztanleria, 0 eta 18 urte artekoa, hartuko da kontuan. Gainera erakundeek aurkeztutako proiektuen aurrekontuaren %75erainoko dirulaguntza jaso ahal izango dute eta laguntza hori ez da inoiz 30.100 euro baino gehiagokoa izango.

Iazko deialdian guztira 158 udalek jaso zuten Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegien zerbitzuen erabilera eta irakurketa sustatzeko dirulaguntza.

**Kultura eta Hizkuntza Politika**

## KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAK 20.000 EUROREKIN LAGUNDUKO DU GASTEIZKO JAZZALDIKO JAZZA PARKEAN EKIMENA

Gaurko Gobernu Kontseiluak Jazza Parkean ekimena babesteko 20.000 euroko dirulaguntza emango dio Kultura eta Hizkuntza Politika sailak.

Jazza Parkean Gasteizko Jazzaldia antolatzen duen Kultur Elkarteak bultzatutako proiektua da, eta Jazzaldiaren egungo bi agertokiak Prado parkean jarriko den hirugarren batekin zabaltzea du helburu. Hirugarren eszenatoki honek ordutegi jarraituko emanaldien programa bat izango du uztailaren 12tik 17ra ospatuko den Jaialdiaren asteburu osoan zehar eta 36.000 euroko aurrekontua izango du. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 20.000 euroko zuzeneko diru-laguntza emango du gastu horiek diruz laguntzeko.

## KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAK 15.000 EUROKO DIRULAGUNTZA ZUZENA EMANGO DIO ELKANO FUNDAZIOARI URRIAN KONGRESU BAT ANTOLATZEKO

*Mundibira 500: Elkano Fundazioak* “ELKANO’22 Nazioarteko Kongresua. Historia Zirkumnabegatzen” izeneko kongresua antolatu du urrirako. Munduari lehen itzulia ematea posible egin zuen gizarte, ekonomia zein teknologia testuingurua berraurkitzea da kongresuaren helburuetako bat. Hiru egunetan Aro Berriko Historian adituak diren hizlariak bilduko dira Donostian.

Kongresua antolatzen laguntzeko Kultura eta Hizkuntza Politika sailak 15.000 euroko ezohiko dirulaguntza emango dio *Mundubira 500: Elkano Fundazioari*.

Getariako udalak, Urola Kostako Udal Elkarteakj, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak elkarlanean sortutakoa da *Mundubira 500: Elkano Fundazioa.* Helburua Juan Sebastián Elkanok orain dela 500 urte emandako munduari lehen bira gogoraraztea eta ospatzea izan da.

Urrian egingo den kongresuak hiru urtean egindako jarduerei bukaera emango die.

**Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa**

## TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO MERKATARITZA, INDUSTRIA, ZERBITZU ETA NABIGAZIOKO GANBERA OFIZIALETAKO GOBERNU-ORGANOAK BERRITZEKO HAUTESKUNDE-DEIALDIA IREKI DU

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak Gobernu Kontseiluari helarazi dio Euskal Autonomia Erkidegoko Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialetako Gobernu Organoak berritzeko hauteskundeetarako deialdia egiteko Ebazpena.

Ebazpenean zehaztutako egutegiaren arabera, hauteskundeak 2022ko urriaren 20an izango dira. Hauteskunde-prozesu honen mugarri nagusiak dira deialdiaren ebazpena, aurtengo abuztuaren 19rako aurreikusita dagoena, irailaren 5ean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, irailaren 7an hautesleen ordezkariak hautatzeko zozketa publikoa, irailaren 16an hauteskunde-batzordeak eratzeko epea amaitzea. Azkenik, hauteskundeen ondoren, osoko bilkura berria eratuko da azaroaren 15ean.

Prozesu hori babesten duen ebazpenean, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak entzunaldia eman die merkataritza-ganberei. Hori bileratan jaso da, eta ebazpen-zirriborroa hiru ganberei bidali zitzaien, testuari ekarpenak egin ziezazkioten. Ekarpen horiek ia guztiak onartu dira.

Espainiako Gobernuak ireki zuen Espainiako Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialetako osoko bilkurak berritzeko hauteskunde-prozesua, eta 2023ko azaroaren 15ean amaitu zen. Data horretara arte egin daitezke erkidego bakoitzeko hauteskundeak. Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak egiten du hauteskunde-prozesu hori Euskadin, bere lurraldeko merkataritza-ganberak zaintzea baitagokio.

**Trabajo y Empleo**

## EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA LAS AYUDAS PARA LA DIFUSIÓN DE LA RESPONSABILIDAD SOCIAL EMPRESARIAL

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la convocatoria de ayudas para la difusión e implantación de la Responsabilidad Social Empresarial en las empresas de la Comunidad Autónoma Vasca.

Dotada con 150.000 euros para este año 2022, las ayudas irán dirigidas a financiar la implantación de la RSE mediante la elaboración de las memorias de sostenibilidad; la realización del diagnóstico de contribución a los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) tanto en empresas de economía social como en aquellas que no lo sean, así como para aquellas actividades de difusión de la cultura de la Responsabilidad Social Empresarial en ámbitos públicos, empresariales y corporativos.

En 2021 esta convocatoria concedió ayudas por valor de 121.309 euros.

**Economía y Hacienda**

## EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA EL DECRETO QUE REGULA LAS MEDIDAS DE APOYO FINANCIERO A EMPRESAS Y AUTÓNOMOS ANTE EL INCREMENTO DE LOS PRECIOS DE LA ENERGIA Y MATERIAS PRIMAS

En línea con las medidas extraordinarias puestas en marcha en 2020 y 2021 para mitigar los daños derivados de la crisis sanitaria en el tejido empresarial, el Gobierno Vasco ha aprobado en su reunión de hoy el decreto que desarrolla el programa de apoyo financiero a pequeñas y medianas empresas, personas empresarias individuales y profesionales autónomas de 2022. En esta ocasión, para responder al impacto económico provocado por el incremento de los precios de la energía y de las materias primas.

En este decreto se establecen las condiciones y el procedimiento de acceso al programa de apoyo financiero 2022, cuyo objeto es posibilitar que pequeñas y medianas empresas, personas empresarias individuales y profesionales autónomas puedan obtener la novación modificativa de los préstamos que formalizaron en 2020 y 2021.

Se establece que las solicitudes de novación modificativa del préstamo y del aval deben realizarse antes del 30 de octubre de 2022 y formalizarse antes del 31 de diciembre de 2022.

La ampliación de la carencia de amortización de las operaciones se considera necesaria en el actual escenario económico, dado que si bien las necesidades de financiación de las empresas se consideran en mayor medida cubiertas con las líneas de financiación ofrecidas en los distintos ámbitos de la Administración, un descenso en los resultados provocado por el alza en los costes de la energía podría llevar a un incremento de impagados por la incapacidad de las empresas para hacer frente en tiempo y forma a las cuotas de amortización de los préstamos.

## Educación

### EL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN DESTINA 28,8 MILLONES DE EUROS PARA EL SERVICIO DE COMEDOR EN DIVERSOS CENTROS EDUCATIVOS PÚBLICOS

- **El Departamento de Educación saca a licitación, en 9 lotes, el servicio de 50 comedores escolares en la modalidad mixta (*in situ* y transportado)**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, destinar 28.836.768 euros para la contratación del servicio de elaboración, transporte y entrega de comidas preparadas, suministro de productos de alimentación y materias primas, y prestaciones complementarias para el funcionamiento de los comedores de gestión directa en diversos centros públicos dependientes del Departamento de Educación situados en los Territorios Históricos de Bizkaia y Gipuzkoa.

Se trata de un total de 50 comedores escolares, ubicados en los citados territorios históricos, y que presentan la modalidad de servicio denominada como mixta, es decir, que combina las modalidades de comida transportada e *in situ*.

Tras la aprobación del citado gasto en Consejo de Gobierno, el Departamento de Educación iniciará la licitación para la contratación de dicho servicio.

Con el objetivo de fomentar una mayor participación de las PYME en la contratación pública, el Departamento de Educación ha dispuesto varias licitaciones en función del tipo de servicio que se presta y el Territorio Histórico en el que se van a efectuar las prestaciones. De esta manera, salen a concurso un total de 9 lotes para prestar servicio en 50 comedores escolares en Bizkaia y Gipuzkoa, distribuidos de la siguiente manera:

- Bizkaia: este Territorio Histórico cuenta con 25 comedores escolares de estas características. Se ofertarán a concurso 6 lotes de prestación del servicio, por un valor de 15.849.042,06 euros.
- Gipuzkoa: hay actualmente en Gipuzkoa 25 comedores escolares de estas características, que salen a licitación en 3 lotes, por un valor de 12.987.726,18 euros.

Todos estos comedores escolares de gestión directa del Departamento de Educación y que ofrecen servicio de comida en la modalidad mixta, sirven a diario cerca de 9.400 menús. La duración de estos contratos será de 30 meses (sin contar los meses de julio y agosto), con posibilidad de prórroga. En el Territorio Histórico de Álava no hay en la actualidad ningún comedor en esta modalidad de servicio.

Los criterios de adjudicación incluyen, además de todos los estándares de calidad, control y medidas de seguridad alimentaria que establece la normativa vigente, criterios de sostenibilidad medioambiental y de fomento de una alimentación saludable.

Actualmente en Euskadi hay 515 comedores de gestión directa del Departamento de Educación, en los que diariamente se sirven cerca de 85.000 menús, entre el alumnado de Educación Infantil, Primaria y ESO. Estos comedores ofrecen los siguientes tipos de menús y dietas: menú basal; menú ovolactovegetariano; menú ovolactovegetariano con pescado; menú no cerdo; y dietas para necesidades

nutricionales especiales (intolerancias, alergias y dietas para patologías con tratamiento dietético específico, con informe médico oficial del especialista).

## Educación

**468.000 EUROS PARA ACTIVIDADES DE PROMOCIÓN E IMPULSO DEL PROCEDIMIENTO DE EVALUACIÓN Y ACREDITACIÓN DE LAS COMPETENCIAS PROFESIONALES**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, la Orden por la que se conceden subvenciones destinadas a las organizaciones empresariales y sindicales con representación en el Consejo Vasco de Formación Profesional para el desarrollo, dentro de su ámbito de actuación, de las actividades de promoción e impulso ligadas al procedimiento de evaluación y acreditación de las competencias profesionales, así como de las labores de coordinación y gestión que resulten necesarias para el correcto desempeño de las mismas. Esta convocatoria cuenta con un importe económico de 468.000 euros.

El procedimiento de evaluación y acreditación de las competencias profesionales posibilita a las personas la acreditación de las competencias profesionales que han adquirido a través de su experiencia laboral o por vías no formales de formación, facilitándoles así que puedan mejorar su nivel de cualificación y continuar con su formación. Todo ello contribuye a mejorar la capacitación profesional y empleabilidad de las personas, la competitividad de las empresas vascas y, por tanto, a reforzar la cohesión social y económica.

Entre los gastos subvencionables y susceptibles de ser financiados a través de esta convocatoria figuran los siguientes:

- Las actuaciones divulgativas que den a conocer que se encuentra abierto, con carácter permanente, el procedimiento para la evaluación y acreditación de las competencias profesionales adquiridas por la experiencia laboral o vías no formales de formación, para la totalidad de unidades de competencia incluidas en la oferta existente en la Formación Profesional del País Vasco.
- Las actuaciones dirigidas a fomentar y estimular la utilización del dispositivo de evaluación y acreditación de las competencias, con el fin de contribuir a dar un salto cuantitativo en el número de personas que lo utilizan.
- Labores de coordinación y gestión que las entidades beneficiarias deban llevar a cabo para el correcto desempeño de las acciones arriba indicadas.
- Los gastos de personal de los trabajadores que las entidades beneficiarias contraten específicamente o asignen con carácter de exclusividad para el desarrollo de las citadas actuaciones.

Las actividades subvencionables deberán materializarse en el ejercicio económico 2022.

Mediante esta convocatoria, el Departamento de Educación persigue el objetivo de impulsar la utilización del dispositivo de evaluación y acreditación de las competencias de manera que se produzca un gran salto cuantitativo en el número de personas que lo utilizan. Esto exige que los agentes sociales con representación en el Consejo Vasco de Formación Profesional deban realizar, como parte del tejido social implicado en la formación profesional y dentro de

su ámbito de actuación, un importante esfuerzo adicional que contribuya a un desarrollo eficiente de las labores contempladas en el procedimiento.

**Educación**

## AYUDAS PARA LA EUSKALDUNIZACIÓN DEL ÁMBITO ESCOLAR

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, la Orden por la que se convocan ayudas para los centros docentes privados concertados para la euskaldunización del ámbito escolar durante el curso 2022-2023. Esta convocatoria es de 190.000 euros.

El objetivo principal de esta convocatoria es impulsar la competencia lingüística y la fluidez verbal en euskera entre el alumnado, así como fomentar el uso del euskera en el ambiente escolar. Por tanto, las acciones o actividades subvencionables a través de esta convocatoria podrán ser las siguientes:

- Actividades dirigidas a fomentar el uso oral de la lengua en los centros educativos en situaciones no formales, a través de actividades dirigidas a la euskaldunización del ambiente escolar: teatro escolar, *bertsolarismo*, canto, radiodifusión, videocreación, podcasts, contacuentos e invitados que ayuden a mejorar la expresión oral del alumnado.
- Actividades realizadas fuera del aula con el objetivo de fomentar el uso del euskera. Se incluyen las actividades dirigidas a padres, madres, personal no docente y profesorado cuyo objetivo final sea fomentar el uso del euskera del alumnado.
- Estancias organizadas con el fin de ofrecer una vivencia en ambiente euskaldun. Para ser subvencionados deben tener una duración mínima de 2 noches. Dado que las estancias en Centros de Afianzamiento Idiomático gestionados por el Departamento de Educación son objeto de apoyo específico, no serán subvencionables en la presente convocatoria.
- Salidas de intercambio entre centros educativos, cuyo objetivo sea aumentar el conocimiento de la lengua y la cultura vasca y un acercamiento entre los diferentes ambientes sociales de los centros.

Estas actividades deberán realizarse durante el curso 2022-2023.

## Salud

**SALUD DESTINA MÁS DE 2.8 MILLONES DE EUROS EN AYUDAS PARA EL DESARROLLO DE DISTINTAS ACTUACIONES EN MATERIA DE ADICCIONES DURANTE EL 2022**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la Orden por la que el Departamento de Salud del Gobierno Vasco destina, este año, **2.854.400 euros** en concepto de ayudas a entidades locales y organizaciones sin ánimo de lucro, que realizan su labor en Euskadi, para el desarrollo de programas de prevención comunitaria, realización de proyectos de prevención y reducción de riesgos y daños **en materia de adicciones** y promoción de conductas saludables. Así mismo, las ayudas se destinarán al mantenimiento de los equipos técnicos de prevención comunitaria de las adicciones de distintas entidades locales.

Con el fin de **promover la salud en las actuaciones que se llevan a cabo en el ámbito local y desde otros sectores diferentes al sanitario, el Departamento de Salud** convoca estas ayudas cuyo objetivo es mantener los programas y proyectos mejor instalados en los ejes de actuación del VII Plan de Adicciones de Euskadi, identificar nuevas necesidades y apoyar nuevos proyectos que las atiendan, así como contribuir a la mejora de nuevas iniciativas.
Estas ayudas económicas **suponen uno de los puntales de la labor en materia de adicciones que se desarrolla en Euskadi** donde la coordinación y colaboración interinstitucional, y la cooperación con el tercer sector y los colectivos es fundamental.

De esta forma, **el Gobierno Vasco y el Departamento de Salud mantienen su compromiso para abordar y dar respuesta al fenómeno de las adicciones** desde un ámbito comunitario, **de acuerdo con el VII Plan de Adicciones de Euskadi** que constituye el instrumento de **planificación, ordenación y coordinación de todas las estrategias e intervenciones que se desarrollan en Euskadi** en materia de adicciones.

Concretamente **la ayuda económica se desglosa en cuatro líneas de subvención** de la siguiente manera:

- Creación y mantenimiento de equipos técnicos de prevención comunitaria de las adicciones: **1.174.135 euros**
- Desarrollo de programas de prevención comunitaria de las adicciones adscritos a los Planes locales y de promoción de conductas saludables en este ámbito de actuación **561.765 euros.**
- Realización de proyectos de prevención y reducción de riesgos y daños y de promoción de conductas saludables en este ámbito de actuación: **1.118.500 euros.**

De ellos, se **destinará una partida de 236.000 euros a proyectos** cuya finalidad sea **la prevención y el tratamiento de la adicción al juego** y otras adicciones sin sustancia en Euskadi.

**Salud**

## EL DEPARTAMENTO DE SALUD DESTINA 25.000 EUROS A LA SOCIEDAD ESPAÑOLA DE EPIDEMIOLOGÍA PARA LA CELEBRACIÓN DE SU 40° CONGRESO ANUAL EN EUSKADI

Donostia-San Sebastián acogerá a finales de agosto el 40° Congreso anual de la Sociedad Española de Epidemiología. Bajo el lema "Retos del siglo XXI", el congreso pretende mostrar los principales problemas de salud que afectan a la población. El Departamento de Salud ha aportado 25.000 euros para que este foro científico que tendrá lugar los días 31 de agosto y 1 y 2 de septiembre se celebre en Euskadi.

Durante tres días profesionales de epidemiología y de salud pública pretenden mostrar los principales problemas de salud que afectan a la población y la importancia del conocimiento que aporta la epidemiología para ayudar a controlar los problemas de salud actuales y las enfermedades emergentes a las que la sociedad se enfrenta. El congreso busca ofrecer una visión integral de los problemas de salud y que, a su vez, aportar conocimiento sobre los factores biológicos, mentales, educativos, económicos, sociales o medioambientales, que pueden condicionar la promoción de la salud y la prevención de la enfermedad en las poblaciones.

El Departamento de Salud ha considerado importante la difusión de estos conocimientos científicos en Euskadi. Además, el congreso contará con una amplia participación de profesionales de salud pública de Euskadi, incluyendo 40 profesionales de la Dirección de Salud Pública.

Próximamente se ofrecerá más información sobre los contenidos, mesas redondas y ponencias.

**Igualdad, Justicia y Políticas Sociales**

## EL GOBIERNO VASCO PONE EN MARCHA UNA NUEVA LÍNEA DE AYUDAS A EMPRESAS PARA PROMOVER LA CONCILIACIÓN FAMILIAR

- **Con un importe total de 392.857,15 euros, estas ayudas buscan fomentar que las entidades conozcan, interioricen y promuevan la conciliación corresponsable**

El Ejecutivo vasco ha aprobado hoy en Consejo de Gobierno una nueva línea de ayudas a organizaciones y empresas para la elaboración de un diagnóstico y de un plan de acción en materia de conciliación.

Con un importe total de 392.857,15 euros, estas ayudas buscan facilitar la contratación de una asesoría técnica que ayude a empresas y asociaciones a conocer, interiorizar y promover la conciliación corresponsable en sus organizaciones.

El contenido y los plazos contemplados para esta nueva línea de ayudas serán presentados el próximo 12 de julio a CEBEK (Confederación Empresarial de Bizkaia), el 18 de julio a SEA Empresas Alavesas y el 19 de julio a ADEGI (Asociación de Empresas de Gipuzkoa). De forma paralela, el 14 de julio los objetivos de estas ayudas serán expuestos en una jornada especial que tendrá lugar en el Palacio Euskalduna.

Esta cita, que ha sido organizada por el departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales junto a APD (Asociación para el Progreso de la Dirección), se centrará en la conciliación como herramienta clave para atraer y retener el talento. Entre los ponentes destaca la presencia de Juan Carlos Cubeiro, experto en Talento, Liderazgo y Coaching, que impartirá una ponencia titulada La conciliación como clave para descubrir y aprovechar el talento de tu organización.

Tal y como se ha destacado en la reunión del Consejo de Gobierno, con la aprobación de esta nueva línea de ayudas, el Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales mantiene un compromiso que ya se recogía en 2018 en el IV Plan de Apoyo a las familias 2018-2022. El objetivo fijado es que cada vez sean más las empresas que en Euskadi promueven planes y medidas que faciliten la conciliación.

Irune Muguruza, directora de Familias e Infancia, ha destacado que “la conciliación de la vida personal, familiar y laboral exige implicación y compromiso mutuo, es corresponsable. Es un proceso vivo que ha de adaptarse a las necesidades de la plantilla y a las necesidades productivas de la empresa”. Es una realidad constatada, ha dicho, que “tener una plantilla satisfecha genera beneficios de imagen, de identificación, de compromiso, de eficacia y de retención del talento”.

Muguruza ha insistido en la importancia de “ir creando empresas concienciadas con el potencial de la conciliación, porque es un valor al alza para las personas trabajadoras, que cada vez tienen más dificultades para equilibrar los diferentes ámbitos que componen su vida”.

**Igualdad, Justicia y Políticas Sociales**

## EL GOBIERNO VASCO DESTINA 137.500 EUROS PARA PROYECTOS DE RECUPERACIÓN DE LA MEMORIA DEMOCRÁTICA DESARROLLADAS POR AYUNTAMIENTOS

El Consejo de Gobierno ha dado luz verde a la convocatoria de ayudas del Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos-Gogora destinadas a ayuntamientos y demás entidades locales.

Mediante esta convocatoria, dotada con 137.500 euros, se podrá subvencionar proyectos específicos de investigación local de la memoria y de la lucha por la democracia y la libertad en Euskadi desde la Guerra Civil hasta la actualidad. Asimismo, se subvencionarán actuaciones encaminadas a la configuración de itinerarios de Memoria Histórica, a la retirada de la simbología franquista y a las actividades de difusión de todos estos proyectos.

Se pretende impulsar las investigaciones locales, originales, subvencionando la edición y la publicación de las mismas, que contribuyan a reconstruir hechos traumáticos que se han vivido en Euskadi desde 1936 y que han supuesto graves vulneraciones de derechos humanos: la Guerra Civil, la dictadura franquista, el terrorismo de ETA y de otros grupos de extrema derecha y el GAL, así como de la violencia policial ilícita. Estos trabajos deben mantener un compromiso con los derechos humanos y la no violencia, así como con la transmisión de los valores de la memoria democrática de Euskadi.

En base a esta convocatoria, son subvencionables también los proyectos para la configuración y desarrollo de itinerarios de la Memoria Histórica, que tendrán una misma imagen y señalética, común a todos ellos, y un discurso respetuoso con los valores de una memoria democrática.

Se promueven, además, las actuaciones conmemorativas de acontecimientos o de homenaje a personas que contribuyan a la transmisión de la memoria democrática de Euskadi, y las actuaciones para su divulgación, como son las jornadas, seminarios, exposiciones, y la generación de contenido divulgativo para las páginas web y otros soportes audiovisuales.

Finalmente, las actuaciones encaminadas a la retirada de restos de simbología franquista son también objeto de esta convocatoria.

**Cultura y Política Lingüística**

## EL CONSEJO DE GOBIERNO HA APROBADO UNA PARTIDA DE 330.000 EUROS PARA IMPULSAR EL USO Y LA LECTURA EN LA RED DE LECTURA PÚBLICA DE EUSKADI

El Departamento de Cultura y Política Lingüística destinará 330.000 euros para fomentar el uso y la lectura de los servicios bibliotecarios de la Red de Lectura Pública de Euskadi. Podrán solicitar las ayudas los Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma del País Vasco titulares de bibliotecas públicas, las entidades locales competentes y las entidades municipales que tengan atribuidas funciones en materia de bibliotecas públicas municipales.

Se subvencionarán actividades de fomento de la lectura, especialmente entre niños y jóvenes, y de difusión de servicios culturales y bibliotecarios de las bibliotecas de la Red de Lectura Pública de Euskadi. Entre otros, se subvencionarán los siguientes proyectos:

- Las actividades dirigidas a la formación específica de profesionales en el ámbito de la promoción de la lectura.
- Las actividades de lectura complementarias (hora del cuento, talleres de lectura, etc.).
- La organización de exposiciones bibliográficas del libro, coloquios, etc.
- La organización de concursos de literatura.
- Las campañas destinadas a la promoción del libro y de las bibliotecas.

El criterio para la distribución de las subvenciones será el poblacional y se tendrá en cuenta la población infantil y juvenil de 0 a 18 años de la entidad beneficiaria. Además, las entidades podrán recibir una subvención de hasta el 75% del presupuesto de los proyectos presentados, que en ningún caso podrá superar los 30.100 euros.

En la convocatoria del año pasado un total de 158 ayuntamientos recibieron subvención para fomentar el uso y la lectura de los servicios de las bibliotecas de la Red de Lectura Pública de Euskadi.

**Cultura y Política Lingüística**

## EL DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA SUBVENCIONARÁ CON 20.000 EUROS EN PROYECTO JAZZA PARKEAN DEL FESTIVAL DE JAZZ DE VITORIA-GASTEIZ

El Consejo de Gobierno ha aprobado, hoy, una subvención de 20.000 euros del Departamento de Cultura y Política Lingüística para apoyar la iniciativa Jazza Parkean.

Jazza Parkean es un proyecto impulsado por la Asociación Cultural organizadora del Festival de Jazz de Vitoria-Gasteiz que consiste en ampliar los dos escenarios actuales del Festival de Jazz con un tercero en el Parque del Prado. Este tercer escenario tendrá un programa de actuaciones en horario continuo durante todo el fin de semana del Festival, que se celebrará entre el 12 y el 17 de julio, y cuenta con un presupuesto de 36.000 euros. Desde el departamento de Cultura y Política Lingüística se ayudará a subvencionar esos gastos con una subvención directa de 20.000 euros.

## EL DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA CONCEDERÁ UNA SUBVENCIÓN DIRECTA DE 15.000 EUROS A LA FUNDACIÓN ELKANO PARA LA ORGANIZACIÓN DE UN CONGRESO EN OCTUBRE

La fundación *Mundibira 500: Elkano Fundazioa h*a organizado para octubre el congreso titulado "ELKANO'22 circunnavegando la historia". El objetivo es redescubrir el contexto social, económico y tecnológico que hizo posible la primera vuelta al mundo. Durante tres días personas expertas en Historia Moderna se reunirán en Donostia.

El Departamento de Cultura y Política Lingüística concederá una subvención extraordinaria de 15.000 euros a la *Mundibira 500: Elkano Fundazioa para ayudar en la organización del congreso.*

La Fundación *Mundubira 500: Elkano Fundazioa* nace de la mano del Ayuntamiento de Getaria, la Asociación de Municipios de Urola Kosta, la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Gobierno Vasco. El objetivo ha sido recordar y celebrar la primera vuelta al mundo de Juan Sebastián Elcano hace 500 años.
El congreso que se celebrará en octubre pondrá fin a tres años de actividades.

**Turismo, Comercio y Consumo**

## EL DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO ABRE LA CONVOCATORIA ELECTORAL PARA LA RENOVACIÓN DE LOS ÓRGANOS DE GOBIERNO DE LAS CÁMARAS OFICIALES DE COMERCIO, INDUSTRIA, SERVICIOS Y NAVEGACIÓN DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO

El Departamento de Turismo, Comercio y Consumo ha elevado a Consejo de Gobierno la Resolución por la que se convocarán elecciones para la renovación de los Órganos de Gobierno de las Cámaras Oficiales de Comercio, Industria, Servicios y Navegación de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El calendario definido en la Resolución establece que las elecciones se celebraran el 20 de octubre de 2022. Este proceso electoral tiene como principales hitos la publicación de la resolución de la convocatoria, prevista para el 19 de agosto de este año, su publicación en el Boletín del País Vasco el 5 de septiembre, un sorteo público para elección de representantes de los electores que se realizará el 7 de septiembre, el fin plazo de constitución de las juntas electorales el 16 de septiembre. Finalmente, tras las elecciones, se constituirá el nuevo pleno el 15 de noviembre.

En la resolución que ampara este proceso se ha dado, por parte del Departamento de Turismo, Comercio y Consumo, audiencia a las cámaras de Comercio. Esto se ha plasmado en reuniones con las mismas, asimismo el borrador de Resolución fue remitido a las tres Cámaras a fin que de que formularan las aportaciones al texto, las cuales han sido aceptadas en su casi en su totalidad.

El Gobierno de España abrió el proceso electoral para la renovación de los Plenos de las Cámaras Oficiales de Comercio, Industria, Servicios y Navegación de España con plazo de finalización el 15 de noviembre de 2023, fecha hasta la que se pueden celebrar las elecciones de cada Comunidad. El Departamento de Turismo, Comercio y Consumo del Gobierno Vasco realiza este proceso electoral en Euskadi dado que le corresponde la tutela sobre las Cámaras de Comercio de su territorio.